



## **Xare Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia Donostiara helduko da abenduaren 17an**

- **Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Xarek berak Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatearen (UPV/EHU) eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatutako ekimenak euskararen erabilera sustatu nahi du IKTen alorrean eta, oro har, kultura digitalaren esparruan.**
- **Batxilergoko lehenengo mailako 487 gaztek hartuko dute parte 3 gunetan . 5 proiekturen aurkezpenak, 2 hitzaldi eta 8 lantegi praktiko barnebilduko ditu egitasmoak.**
- **Neska gazteak esparru digitalera erakartzeko ahaleginean, genero ikuspegiak garrantzia nabarmena izango du jardunaldian; bereziki, Olatz Arbelaitz EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailearen '*E-makumeak: ezinbestekoak teknologia bidezkoa izan dadin*' hitzaldiaren eskutik.**
- **Ikasleekin eta goizez aritzeko pentsatutako Xare jardunaldi hau Durangotik eta Gasteiztik pasatu da lehenago, arrakasta biribila izan da, eta Donostiako saioak itxiko du aurtengo ziklo oparoa. Iruñean ere urriaren 29an egin zuten *Sarean Euskaraz* izenpean.**

Euskarazko kultura digitala sustatu eta ezagutaraztea da Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Xarek berak bultzatutako *Xare* egitasmoaren helburu nagusia: besteak beste, softwareen euskaratzea bultzatzea eta horiek instalatzeko nahiz erabiltzeko ohitura sustatzea, baita euskarazko IKTen sektorea ikusarazi zein balioestea ere. Abenduaren 17ko Donostiako hitzordua prestatzeko UPV/EHUko Informatika Fakultatearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dute gainera.

Goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarte, 7 ikastetxe ezberdinetako (Easo Politeknikoa LHII, Nazaret Zentroa, IES Zubiri-Manteo eta Zubiri-Mateo Zikloa, Elizaran Ikastetxea, Ekintza Ikastola eta Antigua-Luberri BHI) Batxilergoko 1go mailako 487 ikaslek hartuko dute parte UPV/EHU-ren Gipuzkoko Campuseko hainbat eremu beteko dituen ekimen honetan.

Gazteak eduki ezberdinak eskainiko dituzten hiru gunetan barrena mugituko dira:

## Info Aretoa (Ignacio Maria Barriola Zentroan)

Ezagutzara bideratutako areto honetan, euskarazko kultura digitalaren esparruan aitzindari izan diren eta egun lanean diharduten 5 proiekturen inguruko aurkezpen labur (12') bana entzungo dute ikasleek. Hala, Puntu Eus Fundazioak, Librezaile Elkartek, Ahotsak egitasmoak, Booktegi-k eta Euskal Wikilarien Elkartek une honetan esku artean dituzten hainbat proiekturen berri emango dute.

## Ikas Aretoa (Informatika Fakultatean)

Gune praktiko honek 8 lantegi ezberdin hartuko ditu eta, taldetan banatuta, ikasle bakoitzak horietako batean trebatzeko aukera izango du. Tailerrak dagokion sektorean eskarmentua duten profesionalek eta elkarteetako ordezkariak gidatuko dituzte. Honakoa da eskaintza:

- *Musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak* (Dj Makala)
- *Bideomappinga: errealitatea areagotu proiektzioak objektuen geometriara doitu* (Elurmaluta)
- *AppInventor: Android mugikorretarako aplikazioak sortzeko zerbitzua* (Talaio)
- *Errealitate birtualera hurbilpena* (Protomakers)
- *Harremanak 3.0: emadazu 'like' bat* (Emaize sexologia zentroa)
- *Arduino: elektronikaren munduan hasteko* (Protomakers)
- *3D inprimagailuak: objektuak diseinatu eta modelatu* (Protomakers)
- *Raspberry Pi: plaka-ordenagailu txiki eta merkeak* (Iñaki Izkue)

## Era Aretoa (Ignacio Maria Barriola Zentroan)

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek gero eta presentzia handiagoa dute gure egunerokoan. Horregatik, teknologia berriez egiten dugun erabileraren inguruan hausnartzera bideratutako 35 minutuko bi hitzaldi interaktibo hartuko ditu areto honek.

- *Pribatutasuna Sarean* (Maidor Likona, Gipuzkoako Software Askea Elkarteko kidea)
- *E-makumeak: ezinbestekoak teknologia bidezkoa izan dadin* (Olatz Arbelaitz UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea eta UEUko kidea)

Lehenengoak testuinguru pribatu eta intimoan datuak partekatzeak izan ditzakeen arriskuak jarriko ditu mahai gainean. Bigarrenak, aldiz, teknologiaren eta informatikaren unibertsoan murgildutako emakumeen proportzio txikiak dituen ondorio larriez ohartaraziko du.



## **TEKNOLOGIA ETA GENEROA: EMAKUMEAK UNIBERTSO DIGITALEAN**

Hain justu Xare jardunaldi honen babesleetako bat den UPV/EHU-ko ikertzaile eta irakasle bat arduratuko da genero ikuspegia abenduaren 17ko saioan txertatzeaz. Olatz Arbelaitz UEUko kidea ere bada eta, funtsean, ideia edo mezu biribil bat helaraziko du bere hitzaldian: emakumeak unibertso digitalean aktiboki aritzea ezinbestekoa da teknologia bidezkoa izan dadin.

Datuek frogatzen dutena salatuko du, alegia, teknologia eta informatika munduan murgildutako emakumeen proportzioa oraindik ere oso txikia dela gizonezkoenarekin alderatuta. Eta argazki horrek ondorio larriak dituela ikusaraziko du, bizitzako esparru guztietan txertatuta dagoen teknologiaren diseinuak, neurri handi batean, gizonezkoen eta haien pentsamoldearen esku egoten jarraitzen duelako. Kultura digitala nesken gauza ere badela ulertaraziko du Arbelaitzek, eta emakumeek zein/edo beste talde minorizatu batzuek ere tresna informatikoen diseinuan parte hartzearen beharra eta garrantzia aldarrikatuko du.

## **DONOSTIA AURTENGO AZKEN GELTOKIA**

*Xare* Euskarazko Kultura Digitalaren Jardunaldia Durangotik pasatu zen urriaren 31n, Azkue Fundazioaren, Durangoko Udalaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Gero, azaroaren 27an, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean egin zuen geldialdia Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren sostenguz eta baita Eusko Jaurlaritzaren bultzadaz ere.

Aurtengo zikloko hirugarren eta azken geldialdia izango da, beraz, Donostiakoa. Abenduaren 17ko saio honekin, Xarek amaiera biribila emango dio guztira 1.200dik gora ikaslerengana heldu den egitasmo arrakastatsu honi.

Ekimenari sostengua eman dioten instituzioei esker (Eusko Jaurlaritza, Azkue Fundazioa, Durangoko Udala, Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizko Udala, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU), EAEko 16 ikastetxe ezberdinetako Batxilergoko 1go mailako gazteak kutsatu dira euskarazko kultura digitalarekin. Euskaraz ere teknologia sortzea, erabiltzea eta gozatzea posible dela entzun, ikusi eta frogatu dute.

## **AURREKARIA: NAFARROAKO 'SAREAN EUSKARAZ'**

Durangora, Gasteizera eta Donostiara helduko den egitasmoak badu, dena den, aurrekari bat: Nafarroako Gobernuak Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuaren bitartez bultzatutako *Sarean Euskaraz* ekimena. Kasu horretan, 2019ko hau hirugarren ekitaldia izan da, eta iragan urriaren 29an Iruñeko Baluarte Jauregia euskarazko IKTen erreferentziazko gune eta 450 gazteren elkargune bilakatu zen *III. Sarean Euskaraz Jardunaldiari* esker.